

2024ko ORDENANTZA FISKALAK EGUNERATZEKO UDAL GOBERNUAK EGINDAKO PROPOSAMENARI BURUZKO EAJ-PNVren BALORAZIOA

Aurreko astean ezagutu genuen, Pasaiaiko gainerako herritarrekin batera, Udal Gobernuak 2024rako Ordenantza Fiskalak eguneratzeko egindako proposamena. Horri dagokionez, EAJ-PNVren Udal Taldeak honako hau adierazi nahi du:

Udal Gobernuak alegatu du % 3ko igoera orokorra beharrezkoa dela, azken 3 urteetan tasak eta zergak igo ez direlako. Horri dagokionez, zehaztu nahi dugu tasak eta zergak ez direla igo azken 3 urteetan, Covid 19ak eragindako egoeraren, pandemia-egoeraren eta ondorengo inflazioaren ondorioz. Une hartan ulertu genuen herritarrak nahiko zama jasaten ari zirela eta ez zela garaia herritarren poltsikoaren gaineko presioa areagotzen jarraitzeko, eta hobe zela Udaletxean "gerrikoa estutzea".

Zaborren tasa % 14,5 igotzeari dagokionez, adierazi behar dugu beharrezkoa dela 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Erantzunei buruzkoa. Hala ere, arau horrek 2 urteko epea ezartzen du horretarako, eta, beraz, ez da beharrezkoa gehikuntza osoa ekitaldi berean egitea. Larriena, ordea, hau da: egungo gobernu-taldeak ez duela, inola ere, hobaririk planteatu organikoaren edukiontzia erabiltzeagatik. Keinu sinplea izanagatik oso da esanguratsua eta egungo udal-gobernuak erabaki du aintzat ez hartzea.

Azken 4 urteetan behin eta berriz entzun dugu ordenantza fiskaletan jasotako tasak eta zergak progresiboak izan behar direla eta justizia soziala lehenetsi behar dutela; beraz, gure harridura handia izan da egiaztatu dugunean gobernuak planteatutako proposamenean progresibotasunik ez dagoela eta ezin dugula horrelakorik espero. Hainbestetan aldarrikatu duten justizia sozialarekin ere berdin jokatu dute, izan ere ez da kontuan hartzen inongo bitartekotan, eta horrek agerian uzten du gaur egun Pasaian agintzen dutenek azken urteetan egindako aldarrikapenak eslogan hutsa zirela, eta, orain erakusten ari dira ez dituztela inoiz aldarrikapen horiek sinistu.

Azkenik, bai udal webgunean bai hainbat hedabidetan argitaratutako prentsa-oharrean adierazten da hobari batzuk txertatu dituztela gazteek euskara ikas dezaten, edo pertsona gehiagok eskura ditzaten gizarte-zerbitzuetako baliabideak, eta hori ez da egia ez kasu batean, ez bestean. Hobariak aurreko legegintzaldiaren amaieran onartu genituen orduan gobernatzen genuenok, eta, beraz, neurri horiek ez dira inola ere berriak, ezta gure hizkuntza ikasteko politika mesedegarriago baten ondorio ere. Proposatutako aldaketa bakarra Gizarte Ekintza Sailaren tasa batzuetan dago. Aldaketa horiek Jokin Amondarain helduentzat bideratutako alokairuko etxebizitzaren prezioen eguneraketari egiten diote erreferentzia, DSBEaren eta LGSaren igoeren arabera.

Beraz, udal-zergak eguneratzea beharrezkoa izan litekeela uste badugu ere, gure iritziz igoera horiek apurka-apurka egin beharko lirateke, eta aurkeztutako planteamenduan azterketa zorrotzaren falta sumatzen dugu. Zorroztasunik ez izateaz gain, gutxi landutako proposamena da eta, horrekin batera, egungo gobernu-taldearen jardunak erakutsi du, berriz ere, oposizioarekiko erabateko errespetu falta, ez baitzaigu aldaketak proposatzeko aukerarik eman.

Ondo badakigu Udal Gobernuak ez gaituela behar bere proposamenak aurrera ateratzeko, baina zoritxarrez egiaztatzen ari gara hainbestetan elkarrizketarako gaitasunaz, entzuteko gogoaz eta elkarlanerako gogoaz harro azaldu zaigun gobernu talde honen hitzak erabat hutsak direla eta bere ekintzak eta diskurtsoa guztiz kontrajarriak direla.

Espero dezagun hau egokitzapen-aldia besterik ez izatea eta egoera bideratzea. Gure udalerrian badira adostasun zabalak eskatzen dituzten gai estrategikoak, eta pena litzateke EH Bilduk eta Podemos Pasaia Alianza Verde osatutako gobernu-taldeak aukera horiek ez baliatzea. Gure aldetik, berriz ere azpimarratu nahi dugu gure eskuak luzatuta jarraitzen duela eztabaidatu eta akordioak lortu ahal izateko, gure udalerraren eta pasaitarren onerako.